

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Baserri etxeak hainbat beharrezko baliabide izan beharko ditu, abian jarri ahal izateko.



Lehenik lekua beharko dugu, hau da, baserria eta haren inguruko esparru zabala, non ortua joango den baita abereak izateko esparrua.

Baserriak sukaldea, komunak, aldagelak, pare bat logela eta pare bat gela libre ditu. Horrela gure ekintza guztiak egin ahal izango ditugu.

Baserri kanpoan pare bat ukuilu ezarriko ditugu gure eskuz eginik,

bertan abere ezberdinak hezi ahal izateko.

Beste alde batetik ortu handi bat jarriko dugu bertan tomateak, piperrak, kipulak, letxugak, azak, babak, artoa, bainak, baratxuria, patata... atera ahal izateko.

Konposta gunea sortuko dugu, ondoren konpost horrek ortua suspertzeko. Abereen simaurra ere orturako ongarri bezala gordeko dugu.